

4.1. ENTZUMEN BIKOITZA: HAUTAZKO ARRETA ETA ARRETA ZATITUA

Broadbent-en arabera (1958), arreta funtsezkoa da gizakiontzat, informazioa prozesatzeko dugun gaitasuna mugatua baita. Arretari esker, informazio edo mezu batzuk aukeratu eta besteak ezabatzen ditugu.

Arretari buruzko lehenengo ikerketak entzumen bikoitzaren inguruan egin ziren. Arretaren mugak zeintzuk diren jakiteko eta informazioaren prozesatzeaz gehiago jakiteko, Broadbent-ek esperimendu bat egin eta entzumen bikoitzaren paradigma sortu zuen. Subjektu bati aurikularrak jartzen zaizkio eta bi mezu ezberdin bidaltzen zaizkio batera, belarri banatara alegia, eta aukera ematen zaio bi mezutako bati edo biei adi egotea. Subjektua mezu bakar bati adi egoten denean, hautazko arreta aztertzen da, eta, biei kasu egitean, arreta zatitua aztertzen da.

Entzumen bikoitzari buruz orain arte lortu diren emaitzek zera diote: subjektu gehienek mezutako bat ongi jasotzen dute, eta, beraz, erraz oroitzen dute; baina bigarrena ez dute ia oroitzen, mezu horretan ez badira aldaketa esanguratsuak gertatzen (emakume baten ahotsetik gizona baten ahotsera pasatzea...) edota mezu esanguratsuak ematen (subjektuaren izena agertzea mezu batean...). Bestetik, arreta bi mezuetan jartzen bada, hau da, bi mezuen garrantzia eta haiekiko interesa berdina bada, bi mezuak nahasita hautemango ditugu, eta zaila izango zaigu haiek bereiztea (García, 1997).

Entzumen bikoitzaren fenomenoaz azaltzeko, adibideetako bat izaten da festa zaratatsuarena. Demagun edo imajina dezagun festa batean gaudela: musika ozen eta elkarrizketa ugari jendearen artean. Pertsona bat hitz egiten ari zaigu, itxuraz pertsona horrek esaten duena entzuten ari gara, baina, bien bitartean, aldamenekoaren elkarrizketan ipinia dugu arreta osoa. Noizean behin, seinaleak bidaltzen dizkiogu hitz egiten ari zaigunari: buruarekin baiezkoaren keinua eginaz edo "hara" esanaz adierazi nahi diogu adi gaudela. Baina aurrean dugun pertsona konturatu egiten da, arnasa sakon hartu eta alde egiten du; bat-batean, saiatzen gara pertsona horrek azkena esandakoa oroitzen, baina saiakera hori alferrikakoa da. Disimuluan entzuten ari ginen elkarrizketa, berriz, primeran gogoratzen dugu. Adibide horretan, mezu baterantz bideratzen dugu arreta osoa (hautazko arreta), eta, jarrera horrekin, bigarren mezua ezabatzea lortu dugu. Bi mezuak jaso nahiko bagenu, elkarrizketa batetik bestera pasatzen ibili behar genuke (arreta zatitua), baina, hala ere, biei buruzko informazio ugari galduko genuke.

Esan bezala, arretak ahalmen mugatua du. Bi jarduera konplexu aldi berean egitea zaila da, eta horrek errendimendua gutxitzea dakar (batean, bestean, ala bietan): adibidez, autoa gidatzen dugun bitartean zigarro bat piztea, edo irakurtzen ari garen bitartean telebistan esaten denari adi egotea. Baina automatizatuak ditugun jarduerak, berriz, konbina ditzakegu beste jardueraren batekin. Adibidez, makinaz idaztea eta ideia baten inguruan hausnartzea, edo oinez ibiltzea eta telefonotik hitz egitea. Hain zuzen ere,

batera egin litezkeen jarduerak zein diren aztertzea izan da arretaren inguruan egin izan diren ikerketen helburuetako bat.

4.1.1. Helburua

Praktika honen helburua da aztertzea zer nolako gaitasuna dugun batera aurkezten zaizkigun mezuak prozesatzeko.

4.1.2. Metodoa

4.1.2.1. Subjektuak

Psikologiako ikasleak.

4.1.2.2. Tresnak

Aurikular bereziak beharko ditugu, hain zuzen ere, bereziki prestatuak bi istorio batera baina bereizita entzuteko: ezkerreko aurikularretik istorio bat, eta eskuinekotik bestea entzungo dute subjektuek.

Zinta zuri bat beharko dugu subjektuei aurkeztuko zaizkien istorioak grabatzeko.

Azkenik, datuak biltzeko erantzun-orria beharko dugu.

4.1.2.3. Prozedura

Subjektuak gela batean sartuko dira banan-banan, eta bi saio egingo direla azalduko zaie: bata, hautazko arreta aztertzeko eta bestea, arreta zatitua aztertzeko. Jarraian, aulki batean eserarazi eta aurikularrak emango zaizkie.

Hautazko arreta aztertzeko saioan, subjektuei bi mezu desberdin bidaliko zaizkie: bata, eskuineko belarritik eta bestea, ezkerrekotik; baina eskatuko zaie bi mezu horietako bati soilik adi egoteko, eta mezua entzun ahala ozenki errepikatzeko. Ondoren, ustez jaramonik egin ez dioten mezuari buruzko galderak egingo zaizkie, neurtzeko mezu hori prozesatu ote duten edo ez, eta zein neurriraino.

Arreta zatitua aztertzeko saioan, bi mezu aurkeztuko zaizkie berriro ere subjektuei, baina, orduan, bi mezuak entzuten ahalegindu beharko dute. Ondoren, bi mezuei buruzko zenbait galdera egingo zaizkie.

Azkenik, aurikularren bidez hitz-zerrenda bat entzunaraziko zaie, eta, ondoren, entzun berri dituzten hitzak identifikatu beharko dituzte emango zaien zerrenda idatzi batean. Oroimen-proba deituko diogu azken pauso horri; ikusiko dugunez, subjektuak adi ez badaude, ez dituzte hitzak oroituko.

Eranskina 17. Hautazko arreta aztertzeko erabiliko diren istorioak

1. ISTORIOA

Arratoi bat ikuilu batean sartu, eta han zegoen txakurrak, sututa, lurtean zegoen lasto gainera salto egin zuen, eta, haserre bizian, belarriak tente eta mehatxuzko hortzak agirian zituela, zaunka egin zuen, odol-gaiztoz. Gero, zaunka batean, harri baten gainera salto egin zuen. Harriak oreka galdu zuen, eta bai harria eta bai bera erori ziren. Ondorioz, hauts-hodei bat zabaldu zen. Arratoiak ez zuen hainbeste indarkeriarako gogorik eta ihes egin zuen. Txakurrak korrika atzetik segitu zion ateraino, baina, arratoia ziztu bizian irten baitzen, ezinezkoa gertatu zitzaion harrapatzea. Egun hartatik aurrera, arratoia ez zen gehiago gerturatu ikuilu hartara, eta txakurrak ez zuen berriro ere harriaren gainera salto egin.

2. ISTORIOA

Eguzki-printzak ez ziren egunero agertzen, sarritan hodeiak tartekatzen baitziren ortzean, eta eguzkia estaltzen baitzuten. Tomasi biziki gustatzen zitzaizkion hodeiak. Haiei begira liluraturik gelditzen zen. Batzuetan, ia gardenak ziren; beste batzuetan, azukrezko kotoia bezalakoak, eta, aldizka, zaku-tela lodi bat ziruditen. Baziren pertsonen eta animalien tankera zutenak, eta baziren paisaia zoragarriak osatzen zituztenak. Noizik behin, pilatu egiten ziren, eta, orduan, mendi gorenak gogoratzen zituzten. Zenbaitetan, desegin egiten ziren, uretara esne pixka bat botatzen dugunean bezala. Beste zenbaitetan, mantso-mantso ibiltzen ziren alde batetik bestera, artalde baten antzera. Eta, inoiz, arrapaladan joaten ziren zeruan zehar, zaldi basatiak bailira bezala.

Eranskina 18. Arreta zatitua aztertzeko erabiliko diren istorioak

3. ISTORIOA

Ez dira berriak lantegi handi batzuen ahaleginak beste mota bateko mezuak zabaltzeko. Sarritan, ingurumen-heziketaren bidez saiatu dira ekimen horiek zabaltzen. Hor ditugu, esaterako, Tetra Pack lantegiaren joko didaktikoak edo PVC ekoizleen kanpainak. Bestalde, jakina da lantegi askotan ekoizpen garbiagoaren aldeko apustua egiten ari direla, batez ere gizartearen aurrean irudi garbiago bat azaltzeko. Baina aukera horiek ez dira nahikoak enpresari batzuentzat. Haien ikuspuntutik, gaur egun eskoletan egiten den heziketa arriskutsua izan liteke, hau da, haien interesen aurkakoa. Horregatik, bestelako irakaspenak eta haien gaineko kontrol estuagoa eskatzen ari dira. Ekimen horietan, garrantzi berezia du Britainia Handiko Institute of Economic Affairs izeneko erakundeak.

4. ISTORIOA

Bizkorra eta iaioa zen Aranzadi. Ikasle zela, Lekuona maisuarekin ikasi zuen margotzen. Baina haren zaletasunik maiteena musika zen, eta, unibertsitateko ikasle zela, Alemaniaraino joan zen Wagner entzutera. Hala ere, bazuen gustukoa izan arren garatu ezin zuen zaletasun bat: dantza. Ezkerreko izterra gaizki zuela-eta, ezin zuen ganoraz dantza egin.

Hainbat gauzatan iaioa izan arren, ezintasun fisiko nabarmena zuen, eta, beraz, ezin zuen edozein gauzatan jardun. Horregatik eman zuen izena Madrilgo Farmaziako fakultatean.

Ikasketak amaitzen ari zela, ordea, konturatu zen botikari-bizitza lasaia eta errazegia zela. Orduan hasi zitzaion zientziaren arra barruak jaten. Natur Zientziak ikasten hasi zen Farmazia amaitzean. Eta, karrera berriarekin batera, Farmaziako doktoregoari ekin zion. Bietan emaitza paregabeak izan zituen.

Eranskina 19. Istorioak entzun ondoren subjektuek erantzun beharko dituzten galderak.

I. ARIKETA: hautazko arreta aztertzeko saioaren galderak

- 1) Non gertatzen da istorioa?
- 2) Nork egin zuen salto?
- 3) Zer egin zuen odol gaiztoz?
- 4) Arratoiak zer egin zuen?
- 5) Noraino jarraitu zion batak besteari?

II. ARIKETA: arreta zatitua aztertzeko saioaren galderak

- 1) Zein produkturen kanpainari buruz hitz egiten digute?
- 2) Gizartearen aurrean, zein irudi aurkeztu nahi dute?
- 3) Eskolan egiten den heziketa noren interesen aurkakoa izan daiteke?
- 4) Noren bizitzari buruz hitz egiten digu mezu batek?
- 5) Zergatik ezin zuen dantzarik egin?
- 6) Zer ikasi zuen? Non?

III. ARIKETA: oroimen-proba.

Erreparatu hitz hauetako bakoitzari: entzun duzun zerrendan agertu baldin bada, markatu Z (zaharra); eta, berria baldin bada, markatu B.

MADRIL	B	Z
URNIETA	B	Z
ERROMA	B	Z
CASTILLO	B	Z
DONOSTIA	B	Z
BOLIGRAFOA	B	Z
BUCAREST	B	Z
DUBLIN	B	Z
TAZA	B	Z
ZARATA	B	Z